


**GURUTZEKO JOAN DEUNAREN
"BARNE KANTA"
IMANOLEK ABESTEN DU
* * *
IMANOLEKIN ELKARRIZKETAN**

Bizpahiru urte direla sortu zen berria: Imanol Gurutzeko Donibaneren Barne Kanta grabatzeko asmotan dabil. Ez da, noski, gure artean horrelako notiziarik egun biz baten sortzen, zeren euskal abeslariak, nahiko sarritan gure olerkarien poemak abestu badituzte ere, erdal-poetenganako joera handirik ez dute agertu, are gutxiago klasikoenganakoa.

Gurutzeko Donibaneri dagokionez, noruk uka lezake bere poemak irakurtzerakoan, textoaren barrenetik musika berez sortzen dela? Ez gara bakanak poema zoragarri horiek sinfoniren baten mur" gilduta irakurtzea edo deklamatzeko gustatzen zaigunak. Barnekoiak, sakonak eta kuttunak izan arren, ixiltasunean baino musikaren barruan hobeto girotzen direla deritzot.

Ba, harrigarria ba dirudi ere, uste dut Barne Kanta askoz gehiagotan adierazia izan dela margoekin musika notekin baino, hau da, pinturan musikan baino.

Nik dakidanez behintzat, orain artean behin bakarrik musikatatu eta grabatu da Barne Kanta: duela urte batzuk Amancio



Pradak plazaratu zuen diska bat, alegia, Gurutzeko Donibaneren poema nagusia bakarlari abestuz. Ondorio eztabaidatuekin bestalde.

Horregatik lehen aipatutako notiziak irrika bizia sortu zigun. Baina hiru-lau urte luzez itxaron behar izan dugu, Bilboko Arriagan (94-5-29) eta Donostiako Victoria Eugenia (94-6-11) Imanolek Karlos Gimenez-ekin batera egindako lanaren aurkezpena dastatzeko. Berak kontatuko digu gero epe luze horren historia.

Ba, histori hori eta beste zenbait jakiteko eta Imanolen gizatasun haundi horretan (1,90 m. luze gorputzez eta zurrunbilo bat bezain sakon animaz) murgildu eta bere barnean ordu-bete batez arakatzeko asmoz, elkarrizketa baterako elkartzen gara. Elkarrizketa hau lasaitasun osoan egiteko, Donostiako Karmeldarren konbentuko areto bat aukeratu dugu. Non, bada, hobeto, bestela?

Areto erdian, mahai baten inguruan, biok aurrez aurre. Imanolen atzean, paretatik zintzilik, Gurutzeko Donibaneren irudia. Ez dakit Donibaneren irudia Imanolen itzala, ala Imanol Donibaneren irudiaren itzala den.

Eskubian, Teresa Deuna lekuko.

Eta besterik gabe, nere jakinminari txanda emanetz, galdezka hasten naiz.

– *Zergatik Gurutzeko Donibaneren Barne Kanta, eta ez Kantuen Kanta edo literaturaren historian zehar egin diren hainbeste maitasun kanten artetsik beste bat?*

– Ba hasteko, Joan Gurutzekoa aspaldian ezagutzen nuen, baina ez bere osotasunean. Ezagutzen nituen horrelako poema batzuk: Lehendabizi Pako Ibañezek egin zuen “El Pastorcillo” eta gero, horren bitartez beste zenbait gauza. Orduan pixkanaka-pixkanaka hasi nintzen konturatzen zer nolako dimentsioa zuen poesi munduan, eta konturatu nintzen benetan askok eta

askok esan zidatena: Gaztelerako poesiaren gailurra hor zegoela. Eta konturatzen joan nintzen benetan egia zela. Alde horretatik Barne Kanta ikusi nuenean, ikusi nuen hori zela benetan gailur-gailurra ordurarte ikusitako Joan Gurutzekoaren obran.

Gero, hainbeste amodiozko poema edukita, hau kantatu? Alde batetik, poesi ederrena aurkitu, eta gero amodioa nola tratatzen zuen ikusirik, beste poemak txiki-txiki gelditzen ziren. Horregatik, ni hasi nintzen lehendabizi, eta gero Karlos Gimenez-ekin, gehiago sakontzen. Hasieran kanta bat egin nuen eta ez nuen pentsatzen obra guztia egingo nuenik, baina gero pixkanaka, hasi ginenean konturatzen joan ginen, —eta oraindik, grabatu eta gehiago entzunda gero konturatzen ari naiz—, amodioa erabat hor dagoela maiuskuletan.

— *Orduan zer da momentu honetan hirezat Gurutzeko Donibane?*

Nirezat lehendabizi ezezagun bat zen. Gero ezagutzen joan nintzen neurrian konturatu nintzen bere obra zer zen, baina beti kanpotikan. Orain, ni bere mundu horretan sartu naiz, bere amodioan eta baita —zergaitik ez?— bere mistika horretan (neri inportantea iruditzen zait hori azpimarratzea). Eta nere bizitzan, seguruenik, lan hau bukatuta gero, zerbait aldatu da. Amodioa horrela sentitzea, bere hezetasunean. Ez da pertsonarekiko amodioa bakarrik, da naturarekikoa, da argiarekikoa, ...ez dakit, gauza denak juntatzen dira horretan. Ba, agian, nere barruan, nere baitan, serenidade gehiago eman dit. Eta horrek zerbaitetan aldatu nau.

Ahotsa gozoa du: Gau iluneko mila borroketan sakondua eta maitasunezko mila kanta ferekatuz gozatua. Bihotzaren sakonetik bihotzaren sakonera bidea egiten ohitua, barne muietako kontuak kontatzeko aproposa.

— *Zerbait inportantea, orduan, hire bizitzan?*

— Bai, bai.

– *Joan gaitezen erabili duan itzulpenari buruz hitz egitera. Hi ru edo lau itzulpen bazeudek...*

– Lau

– *Lau horiek erabat desberdinak dituk alde guztietatik: batzuk, hitz neurtuetan, besteak hitz lauetan; batzuk rimarekin, besteak rimarik gabe; e.a... Zergatik Orixerena?*

– Bueno, hasteko, beldur handia ematen zidan itzulpen bat kantatzeak; oso gutxitan kantatu izan ditut itzulpenak, zeren frantzesek esaten dutena —“traduction = trahison”—, askotan egia izaten duk. Baina konturatu naizena zera da, itzulpenak, denak onak zirela: batzuk askoz literarioagoak ziren, beste batzuk beste rima batekin, beste sentidu batekin, askotan. Orixerena, egia esan, ez hoberena zelako, —agian hoberena izango da; hori oso subjeliboa da—, baizik eta musikalena zelako, erabat musikala! Haren hitz-jokoa, haren... Orixerena ez da nerretzat itzulpen bat, Orixek Joan Gurutzekoaren poesia hori erabat bereganatu zuen, eta berak bere kolorea, bere baitan zegoena eman zion. Horregatik erabaki genuen Orixerena. Behin edo behin batzuekin kontsultak egin genituen, guk baino gehiago zekiten askorekin, eta erreakzioak hauek ziren: “Ez da hobeto izango Akesolorena?” “Itzulpen serioagoa...” esaten zuten, “edo zehatzagoa, edo...” Baina gero entzun dutenean arrazoia eman digute.

– *Esan dek aukera hau izan zela, batez ere musikala zelako. “Musika ixilla” liburuaren hitzaurrean, Orixek diatriba latza botatzen dik hitz neurtuen kontra. Bere teoriak azaltzen dizkik rimak zenbateraino poeta baten inspirazioari ateak eta leihoak jartzen dizkion esanez. Eta gero... —xelebrea!— berak itzultzen dik eta... hitz neurtuetan...*

– Neurtu neurtuetan!

– *... eta gainera rimarekin eta originalaren neurri eta rima desberdinarekin.*

– Bai, bai, bai.

– *Nola ulertzen duk hori? Musikaltasuna, hitz neurtuetan eta riman dagoen musikaltasuna esan nahi al duk, ala, beste musika sakonagoagatik ari haiz, hitzena agian...?*

– Hitzena, hitzena! Bai! Hor dago musika zoragarria, hitzetan... . Aspalditikan esaten zian Mikel Arregik: "Orixe irakurri... Orixe...! Orixe...! Beti...!"

Gainera badakik Orixek bere ohean, burukoaren azpian Gurutzeko Donibaneren Idazlan Guztiak edukitzen zituela, ez?

– *Konta hidak aukeraketa hori egin zenuten momentutik aurkezpena egin zenuten arte, zer istoria bizi izan zenuten?*

– Bai, luzea, oso luzea.

Lehendabizi konturatu ginen oso desafio fuertea zela. Haste-ko, Gurutzeko Joan zelako, eta Orixe zelako; eta gero, Barne Kanta zelako: hori dena osotasunean hartuta. Diskoak egitera-koan, gure prozesua hau izaten da: bi urtetik bi urtera poeta



batzuen hamalau-hamabost kanta egtinak izaten dituk, eta orduan, logika batez ordenatu eta grabatu, eta kitto. Hau, berriz, desberdina zen: berrogei bertso horiek ordenatu, hari bat jarri, zentzu musikal bat eman, eta gero, osotasunean dena ikusi.

Orduan, kantu bat egin eta gero, beste bat hasi ginenean, hor izan zen lehendabiziko lioa: Gauza bat bestearekin nola lotu? zeren ez da berdin, diska nomal batean gertatzen dena: Jon Miranderen poema bat hartu eta gero ondoan Koldo Izagirreren bat ezarri, eta kitto, bi mundu aparte izan arren. Orduan hortik zailtasuna izan genuen.

Gero bestetik, konturatu ginen benetan edukin horrentzat eta egiten ari ginen musika harentzat behar-beharrezkoa izango zela koroa.

Koroarena ikusten genuen orduan beharrik nagusiena. Gainera, ikusirik Euskal Herrian zer tradizio dagoen ahotsetan eta abar... Eta gero hor genuen zalantazrik handiena zera zen, ea biluts-bilutsik agertu behar genuen. Zeren Joan Gurutzekoa zen... biluts... bere poesia bilusturik agertzen da. Eta horri bonbo gehiegi ematea, barroko gehiegi ezartzea... hor izan genuen duda asko. Azkenean baiezko erabakia hartu genuen.

– *Ahoa biguina somatzen zaio, esaten dituen hitzak leuntzen trebea.*

Eta orduan... —klaro! diska hori ez da batere komertziala, produkzio hori diru asko kostatzen da—, batzuk esan ziguten proiektua interesatzen zitzaie. Eta hor ibili ginen urtebetean bukatu ezinik, azkenean egingo al genuen ala ez ez genekielarrik. Azkenean, Euskal Gobernuako Kultur Sailak interes handia zuela esan zigun, oso serioa ikusten zuela gure proiektua; bestalde oso interesgarria ikusten zuela nire traiektoria ere, eta sudentzioa eman zigun. Eta horrekin bukatu genuen arazo horrekin. Gero, prozesu hartan zetorren galdera zera zen: Zein kororekin, zein jenderekin grabatzen hasi?! Hasi hasieratik oso harrera ona izan genuen, Koro Easoko partaide horiekin. Bes-

talde aspalditik ari gara lanean sokako kinteto horrekin —"Easus Ensemble" jarri diogu izena—. Polakoak eta Rumanoak dira Euskadiko Orkestako partaide dira.

Bai, horiekin aspalditik grabatu ditugu diskoak eta horiek ere proiektuan sartzeko prest gaude.

Eta gero, dena konposatuta genuenean, ikusi genuen obra hori bidai txiki bat bezala egin behar zela, eta horretarako gidari bat behar genuela. Eta gidaria flauta izan zen. Flautak bidexkatik sartu eta alde batetik bestera eramaten gaitu. Eta hasieratik —konturatzen bahaiz— piano eta ahotsa besterik gabe hasten gaituk, soil-soilik. Pixkanaka-pixkanaka anuntziatzen goaz ze elementu sartuko ditugun. Hasten duk flauta pixka bat, gero koroa pixka bat sartzen duk, eta gero soka. Eta horrela, pixkanaka azkenera arte. Hor elementu denak sartzen dituk, azken partea hain fuertea baituk koroakin kantatzeko eta horrela azkenengo kantuz bidaiari bukaera emateko.

– *Bai eta bukaera hasierarekin lotuz gainera.*


– Hori da, hori da.

– *Publikoari zuzenduta ere zerbait egin zenuten.*

– Bai, 1990.an honetan lanean ari ginenean, "Nun zaude kuku, maite", lehendabiziko kantua, telebistan behin kantatu nuen "Laino guztien azpitik" programan. Gero Karlos Gimenez-ek, Ester Remirok eta nik ordubeteko espektakulo bat egin genuen. Nik Barne Kantako beste bi kantu kantatu, eta gero Ester Remirok gazteleraz Juan Gurutzekoaren beste zenbait poema rezitatzen zituen. Hori Karmelita batek eskatuta izan zen. Ordubete eta pikuko espektakuloa; elebiduna gainera. 1993n Euskal Gobernuaren subentzioa jaso genuen, eta posible izan zen grabatzea eta aurrera segitzea.

1993 bertan, Txillidaren exposizioan, Miramarreko Jauregian ikusi nuen nola Barne Kantari buruz estudio batzuk zituen. Eta deitu nion diskaren azalerako horietako dibujo bat eskatzeko

BARRE KANTTA
GUTURZETKO JEAN DOKETA
ORIXE



⊕

IMANOR KARLOS BIMEATZ

eta berehalaxe esan zidan maketa bat pasatzeko; maketa pasa nionean, eta entzun zuenean esan zidan nahiz eta lehendabizi pentsatu horietako dibujo bat uztea, honetarako gauza berri bat egiteko asmoa zeukala. Eta handikan hamabost egunetara deitu zidan eta besterik gabe hortarakoxe egindako obra eskaini zidan .

Imanolen eskuek koru baten zuzendariarenak dirudite, pianissimo bat moldatzen.

– *“Maitearen bila aritzea Jainkoaren bila aritzea bezalako-
xez baita. Hainbeste idealizatu ditugu biak, ezen azkenik bata
bestearekin nahasten baititugu. Mistikoetan handienak are
maitale handiago izan dira. Animaz maite, soin-gorputzez,
begi-belarriz baino”. idazten dik Felipe Juaristik diskaren aza-
lean. Zein da hiretzat maitea Barne-Kantan? Jainkoa, nola-
nahi ulertua,...?*

– Ez, ez. Emakume bat zen.

– *Pertsona konkretu bat, beraz?*

– Bai. Eta gainera elkar galtzen ari ginen. Istorio oso fuerte bat bizi izan genuen, baina istorio zaila, oso zaila. Eta momen-
tu horietan juxtu ez bukatzen, baizik eta, —nola hain zaila
zen— separatzen ari ginen. Eta horregatik “Nun zaude kuku
maite” eta horrelako gauzak ... Ni poema horretan benetan
sartu nintzen...

– *Orduan bizi-bizi eta bero-bero bizi izan duk Barne Kanta
hire maite konkretu horrekin?*

– Bai, bai. Eta maite hori ikusi gabe bi urtetan egon naiz, eta
diskoa izan dudanean, berari eman diot, esanez “Hau zurega-
tik egin det”.

Aretoko haizea dardarka bizian dago.

– *Nik esaten dudanean, Gurutzeko Donibanek Barne Kan-
ta, mistiko bezala, arima eta Jainkoaren arteko maitasunari
buruz egin, eta orain, hori ez dakien batek poema hau ira-*

kurtzerakoan, giza maitasunik sakonena eta ederrena bezela ikusiko lukeela, ez nian inoiz pentsatuko hainbeste arrazoi edukiko nuenik...

– Bai, bai,... hola duk. Gainera, gero, sakonduz konturatu naiz Joan Gurutzekoak ere... (ez dakit, igual astakeria bat esango dut, baina nik horrela pentsatzen dut), berak ere, hori idatzi zuenean, ez zuela bakarrik Jainkoagan pentsatzen, baizik eta pertsona konkreturen bat ere bazela. Nik hori pentsatzen dut.

Ume zintzo baten aurpegia du, arduragabekeria puntu batez apropos hornitua.

– *Hik esan duanez, Barne Kanta era batera bizi izan duk. Donibane Gurutzek beste era batera bizi izan zian, mistikoki. Zer iruditzen zaik, horrela begiratuta, Orixek egiten duen bereizketa "Musika ixila" liburuan, "giza maitakeria" eta "Jainko maitasuna" bereizten dituenean. Eta garbi bereiztu gainera. Ohartu hitzak ere nola bereizten dituen: "Maitasuna" eta "maitakeria".*

– Dударik gabe ni horretan ez naiteke akort egon: maitasuna maitasuna da. Eta gero beste kontenidu bat edo ematen bazaio, ba... Baina giza maitasuna maitasuna da, ez da maitakeria.

– *Orduan Ghik olerkian, abestian, musikan,... inolako diferentziarik ez diok ikusten. Maitasuna dek: Jainkoa maiteko dek edo neska hau maiteko duk...*

– Bai, bai... edo natura maiteko dek. Bere osotasun guztian ikusten det nik hori. Gainera nere bizitzan beti aldapan gorako amodioak izan dira. Ni beti holakoa izan naiz. Eta nere bizitzan ere bai. Momenturen batetan errexkerian erortzea somatzen badut, uff! atzera botatzen naiz berehalaxe esanaz: "Nun ari zera?". Ez, beti horretan oso zehatza izan naiz, jadanik oso gaztetatik. Inoiz ere ez naiz oso ondo adaptatu maiorari, gehiengoari.

– *Eskenategian, zuzenean maite kanta bat abesten ari zarenean, protagonista abeslaria denean, "zeini abesten diozue?"*

— Bai. Hau oso posiblea da. Askotan poema bat hartzen duk eta oso abstraktoa duk hor esaten dena, baina hala ere, benetan sentitzen duk, pertsona bati esaten bezala. Nik badituz kanita hori benetan sentitza. Aktore bat bezala da: aktore batek, peli-
bat ordezkatzan...; imajina batzuk izaten dira. Horrek ematen dio askotan aberastasuna poema bati. Horrek ematen dio ipektasun hori, eta horretan Barne Kanta totala da erabat. Hori da koadro bat bezala: esaten dizutenean koadro batek hori esan nahi duela, "bueno, izan daiteke, baina beste hori ere bai...". As-
kotan oso honak direnak gauza gehien esan nahi dutenak dira.

— *Bai, hori egia da. Koadro batek esan nahi duena garbi esaten duenean, nolabait oso mugatua gelditzen da. Koadro batek egin behar duena da slyerthi, probokatu,...*

— ...eta gainera koadro horrek agian egun batean gauza bat esaten dik eta, beste batean, hori eta beste zerbait gehiago. Hortan irekiak izan behar dugu, artea horretarako baitago.

— "Nola gizamaitasuna dastatu ez duen, are gehiago, giza matiasunari uko egin dion batek, nola dezake matiasun ha-
remamak sakontasun eta lilura horrekin adierazi?" galdetzen dutenei erantzuna eman die Imanolek: Barne Kanta matiasun ha-
suntaren idealizazio bat dela, baina ez beharrez Jainkoarekiko matia-
suna. Hori esan nahi du, ezta?

— Bai, hori da.

— Beste arlo batera joango gaituk: "Ene Segurako aitona k-
ogia behar zuenean, Kastillara joaten ziran journalaritzara,
fabriketara..."

— Bai, Mikel Azurmendiren poema...

– Hire Segurako aitonak, Kastillara joan zirenean, Avilatik Barne Kanta ekarri al zuten, ala herorrek ekarri duk heure bidaireren batean? Eta hau esaten dutenean, badakik ez diatela errepidez egiten den bidaiaz hitzegiten.

– Bueno, hor nahasketa bat zegok. Alde batetik, nere aitak eta aitonak irakatsi zidaten beti, irekitasun bat izan behar dela bizitza honetan, Euskaldunak garela, baina euskaldunegandik aparte, badirela beste herri batzuk, beste jende batzuk, eta ez direla gu baino gutxiago. Ezberdinak garela, Euskaldunak garelako, baina gauza askotan igualak garela, etab... Irekitasun horretan finkatuta.

Gero, neri ere hortik hasi eta, nere bizitzan ibiltzea asko gus-tatu zait, zeren benetan konturatzen naiz hemen gure zilborrari begira egonda, ez dugula ezertan aurreratzen. Beste kuceltura batzuk ezagutzeak, beste jendea ezagutzeak etab., gurea beste era batera baloratzen, agian gehiago baloratzen laguntzen digu. Gainera hortaz esan behar da, lehen aipatu dudan pertsona hori, hainbeste maite nuen pertsona hori, hain zuzen, kastellana zela, ta horrekin gauzak bastante juntatzen dira. Hortaz, Barne Kanta hori nere baitan dago, zeren amodioaren kontzepzio hori, eta hainbeste pasiokin eta hainbeste zailtasunekin maitatze eta poesi kastellanoa gehiago ezagutzeak, eta beste munduak hobeto ezagutzeak eraman nau horretara. Barne kanta bidai horretan nereganatu dut era honetara.

– Beste aldetik begiratuta: “Zuek hil zineten, atomo, huts, hauts, bihurtu zineten...”. Aszetika heterodoxo horretatik zer bide dago Barne Kantara edo ta bere mistikara hire baitan?

– Bide handia. Hasteko konturatu zaitez, “Zuek hil zineten...” kantatzen hasi nintzenean, ETAKoa nintzela. Hori da 77 edo 78 aldean.

Ni gauza batean sartzen naizenean, erabat sartzen naiz. Eta orduan kartzela tokatu zitzaidan, eta gero exilioa. Exilioa asko eta askorentzat oso txarra izan da, eta normala da, zeren, beste

herri batean zaude, hizkuntza ez duzu ezagutzen, lagunik ez duzu, lanik ez duzu... oso zaila da. Nik, zorionez, jende asko ezagutu dut kantuaeren bitartez, eta jende horrek asko lagundu dit. Hauen artean Pako Ibañez-ek asko lagundu dit exilioan.

Ertzik eta ixkinarik gabeko nortasuna agertzen du gizon honek, kromlech baten harriekin borobildua.

Hortikan hasten naiz ni beste kultura batzuk ezagutzen. Nik jadanik beste balorazio batzuk ditut kantuari buruz: nik uste nuen garai batean, ("Zuek hil zineten..." hori aparte), nik egiten nituen letrak edo kantuaek situazio bat salatzeke medioa zirela. Orduan egin nituen "Kanta jaia" Michel Etxegaraireren izenarekin etab.. Ordundikan hasten naiz erreflexionatzen kantu bat egiteke kalitatea behar dela, letrak kalitatea behar dutela. Orduan hasten naiz beste poeten munduan: Mikel Azurmendirekin, Txato Agirrerekin, etab....Geroago Bertold Brecht eta mundu horretan sartzen naiz. Mundu horretan ni eboluzionatzen joan naiz. Euskal Herriaren gauzei buruz ere eboluzionatzen joan naiz, askoz ere irekiagoa ikusten dut hemen situazioa. Eta poesian ere bai. Hori dena erlazionatuta dago.



– *Nik ikusten diat abesti hau nolabait existentzialista dela.*

– Bai, erabat, eta oraindik kantatzen dut. Zeren hori pertsona baten barruan dauden mila mundu da.

Hitz egiten duenean, bere hitzak entzun ordez, bere sentimenduen eta bizipenen oihartzuna entzuten zaiola dirudi.

– *Abesti hau erabat existentzialista duk eta orain Donibane Gurutzeren Barne Kanta abesten ari haiz. "Zuek hil zineten..."eko existentzialismotik Barne Kantara eboluzio handia zegok.*

– Eboluzio handia, oso oso handia.

– *Nola izan da eboluzio hori?*

– Pertsona-eboluzioa izan da, zartako handiak hartuz... Hemen, herri honetan, —ziurrena herri guztietan berdin izango duk, baina, hemengo esaten diat— oso zaila da zenbait gauzari buruz zenbait posizio hartzea eta oso klaro hitzegitea. Hemen, orain arte jendeak ez du garbi hitzegin zenbait gauzei buruz: bai euskarari buruz, bai presoei buruz, bai errepresioari buruz, bai... gauza askori buruz. Eta ni horretan ez naiz inoiz moztu, eta pauso bat eman dudanean oso klaro hitzegin dut. Adibidez, erdaraz abesten hasi nintzenean: hori defenditu izan dut eta defenditzen dut. Oso logikoa iruditzen zait. Jendeak gainera beste arloetan onartzen du: errebistetan etab. Eta neri orduan zergatik ukatzen dit? Nik, euskaldun kantari izanda, erdara dominatzen badut, zergatik ez dut erdaraz kantatu behar? Jakinik nere obra gehiena euskaraz izango dela. Horregatik esaten dut, zartako asko hartu ditudala. Gero konturatu naiz, batez ere, —eszeptizismo horretan— hemen garrantzirik handiena duena lagunak direla, pertsonak. Eta pertsona horietan oinarrizkoa; benetan onak direnak, eta benetan trastiendarik gabe hitzegiten dutenak. Eta kontutan hartu irekiak direnak, eta nahiz eta asko jakin, edo nahiz ta gauza asko egin, arrokeritan erortzen ez direnak. Halako balore batzuk ikasten joan naiz bizitzan, nerretzat inportanteak direnak. Eta agian, horregatik gaur egun kantatu dezaket "Zuek hil zineten" eta Barne Kanta.

Begirada lotsatia du ixilean; baina, hitzen lagun datorrenean, tinkoa, bere hitzei bidea emeki-emeki zabaldu nahiko balie bezala; golde bigun batek zure belarrietan, edo hobeto, zure bihotzean, ildo bat zabaldu nahiko balu bezala, bere hitzaren hazia ereiteko.

– *Eta abesti berarekin jarraituz, "zuek ez dakizute zer den betikoan bizitzea". Orain ba al dakik zer den betikoan bizitzea?*

– Oraindik ez. Oraindik ez. Hori bilatzea... Bizitza hori da, ez? Bilatu eta bilatu. Askotan aurkitzen da, baina beste batzuetan ez. Gauza batzuk aurkitzen dituzu, eta ezagutzen ez dituzunak bilatzen saiatzen zara... Bizitza hori da, ez? Ez dakit...

– *Hire bizitzaz zerbait esan duk eta orain horri buruz galdera egingo diat perspektiba berezi batekin. Hik badakik Gurutzeko Donibanek nolabait bere bizi bidaia "gau ilunetik" — "en una noche oscura, en ansias de amores inflamada..." — Barne Kantara egin zuela, aszetikatik mistikara, gau ilunetik maitearekin elkartzera. Hire bidaia pertsona abeslari eta euskaldun bezala gau ilunetik barne kantara izan al da, ala dijoa...?*

– Horretan doa, horretan doa, bai. Zentzu horretan ikusten dut erabat. Eta inportantzia duten gauzei inportantzia ematen diet eta ez dutenei ez diet inportantzirik ematen; energia ez zait gastatzen gauza superfluoan...

– *Ez da erreza hori ikastea.*

– Ez, saiatzen naiz. Horretan saiatzen naiz. Askotan, oraindik, gauza askotan erortzen zara ez? Baina... bai, bai, direkzioa hori duk nere bizitzan, dudarik gabe.

– *Gau iluneko zulo handiekin...eta Barne Kantaren argi eta iragan handiekin.*

– Bai, bai. Hori da, hori da, zulo beltz handiekin eh! Pentsa ezak, nik, duela bost urte, —bueno, ordurako jadanik kotxea pintatu zidaten, erruberak pintxatu, mehatxuak alde batetik bestera, eta ordutikan pintada haiek etab.— mehatxuak izan

nituenean, oso mehatxu serioak bestalde, benetan, bi edo hiru urte beltzak, oso beltzak pasa nituen. Zeren, neri ez zait gus-tatzen jendearekin enfrentatzea, baina, jadanik hain gogorra zen mehatxua, hain fuertea zen, ba nahi ta nahi ez egin nuena egitea... ba beharrezko bezala iruditu zitzaidan. Hor izan nuen oso momentu beltza.

Donibaneren irudiak Imanolek esaten duen guztiaren itzal dirau.

– *Gau ilunena hori izan al zen?*

– Bai, ilunena.

– *Ni gogoratzen nauk lehenago, erdaraz abesten hasi hinc-zanean, eta nolabait, momentu hartaz. Hiretzat, ez diat pentsatzen, situazio, egoera goxoa izango zenik.*

– Oso txarra, oso txarra...

– *Mehatxuen momentu hura, bai, oso konkretua eta gogo-rra izan behar huan. Nik gau iluna esan diadanean, gehiago harekin pentsatu diat...*

– Bai, baina, horrek zerikusia badu bestearekin; hori traiek-toria bat da. Hor badakizu... organizazio horrek, bere barruan ibili ez direnei gauza askoz ere gehiago barkatzen dizkio. Bar-ruan egon denari... kontuz...! zeren, lehendabizi izan daiteke erdaraz kantatzeagatik; bigarrena izan daiteke... ez dakit zerga-tik, baina beti beti beti "punto de mira"-n zaude. Horregatik gau ilun hori hor zegoen eta oraindik hor dago, baina zorio-nez oso gaindituta

– *Egunsentia nahiko aurrera sartu da, ez?*

– Hori duk! Hori duk asuntoa...

– *Hitzegin dezagun orain ba, Barne Kantaz, baina erresul-tado bezala, emaitza bezala. Hik, barne kanta abesterakoan, ze erreakzio espero huan jendearengandik? Esan nahi diat, Barne Kanta ez duk erdaraz —eta euskaraz gutxiago— edo-*

zeinek entzun eta kolpetik dastatu, somatu dezakeen olerki bat. Orduan, nik uste dut listoia oso goian jarrita zegoela, ze erreakzio espero huan jendeagandik eta ze erantzun izan duk. Zeren jendeak hitz egingo zian, kritikak irakurriko hituan...

– Lehendabizi banekien, oso lan minoritarioa izango zela. Hori oso klaro neukan. Baina horrek ez ninduen batere beldurtu, horrek indar gehiago eman zidan horretan segitzeko (zeren askotan jendeak bere lana publikoan pentsatuz bakarrik egiten du, eta ez bere kreaizio mundu horretan pentsatuta). Orduan, minoritarioa izango zela. Gaur egun bizitzen dugun zibilizazio hau ikusirik, beste punta batean dago lan hau; beste bizimodu bat, beste erreflesionatzeko eta sentitzeko modu bat agetzen du. Orduan, nik musika asmatzeari ematen nion inportantzia, zeren eta musikaren bitartez jendea geureganatuko genuela pentsatzen genuen. Orduan, jendearen lehendabiziko erreakzioa sorpresa izan zen, gero...

– *Sorpresa zeinentzat?*



– Jendearentzat, bai. Harrituta esaten zuen: “San Juan de la Cruz?!” Gero hau esplikatzten joan naiz eta jendeak ulertu du . Gero konturatu naiz musikaren bitartez pixkanaka sartzen ari dela jendea. Lan hau betirako geldituko den zerbait izango da; bueno, betirako, urte batzuetan behintzat, hor egongo dena. Eta jendea dastatzen joango dela, eta ahoz aho, bati gustatu zaiola, ta besteari pasa, etab... Pixkanaka-pixkanaka konturatzten ari naiz horrela suertatzen ari dela.

– *Beraz obra klasiko bat egitea al zen hire asmoa?*

– Ez zen hori nere asmoa, baina gero konturatu naiz horrela izan daitekeela. Agian hori bihurtuko da, zihurrenik.

– *Zer iruditzen zaik hiri, Gurutzeko Donibanereren imajina eta alegoriaz, metafora, konparazio eta hizkeraz,... hitz batean Gurutzeko Donibanereren munduaz jendea jabetuko dela? Uste al duk gaur eguneko jendea, gaurko gizartea, belozidateko gizarte hau, stressean bizi den gizarte hau, prest dagoela edo zabalik dagoela imajina hauek somatzeko, edo dastatzeko edo bizitzeko?*

– Maioritarioki ez. Baina batzuk bai. Eta zorionez, konturatzten ari gera egunetik egunera gehixeago direla. Ba, horien esperantzan egin da lan hau. Maioritarioki ez, jendea estressean, hik esan duan bezala, beti presaka, korrika bizi duk, dirua bakarrik interesatzen zaio, bakarrik futbola,... Baina hor gaude gu hori urratzeko, zeren guri, artistei, gelditzen zaigun gauza bakarra hori da: gure kreazioaren bitartez gauza horiek al dugun moduan, pixkanaka-pixkanaka eta oso umilki aldatzen joatea.

Hara, ze jomuga ederra!

– *Eta orain zer? Barne Kantatik zerura? Ala berriz ere errealityateko gau ilunera? Zer asmo dituk eta zer bide...*

– Gustatuko litzaidake zeruan egotea, baina askotan gau iluna ere izaten da. Ez, hor ari naiz beste proiektu batzuekin.

Beste kanta pila bat eginak ditut poesia munduan: Rimbaud-en poesi batzuk, Mikel Lasak itzulita; gero Miranderen beste bi hiru poema; Patziku Perurenaren poemak ere; Felipen poemak rezitatu; pare bat balada greziar kantatzeko asmoa dut —letrak ere eginak dira eta pasa dizkidate—; gero Jacques Brel-en bi kantu emateko gogāoa dut; itzulpenak ere oso onak ditut Andoni Lekuonarenak: bata "Ez nazazu utzi" eta bestea "Amsterdam-go portua"...

– *"Ne me quittez pas..." euskeraz kantatu behar dek, eh?*

– Bai, bai, bai, "Ez nazazu utzi"

– *Erronka bat duk !*

– Bai, bai, baina oso itzulpen ona duk, oso ona eta gainera oso musikala. Eta hortik aparte, hor ari gara Euskal Telebistarako hamairu programa egiten, "Kantuz bizi" izenarekin. Nik zuzentzen dut, eta hor ia-ia kantari guztiak parte hartuko dute: Laboatik hasi eta... Lehenengoz 13 episodio izango dira, horregatik gazte gazteenak ez dira sartuko oraingoz. Baina... hurrengoan seguruaski sartuko dira. Horietatik %60 kantu herrikoiak izango dira, eta besteak, bakoitzaren klasikoak. Esate baterako: Leteren "Nafarroa Arragoa", Balberderen "Lauaxetaren" zerbait... Eta gero elkarrizketa batzuk ere izango dira Juan Mari Lekuonarekin, Joxean Artzek ere poema batzuk irakurriko ditu, Bernardo Atxagak ere parte hartuko du... Proiektu nahiko serioa beraz. Abenduan entregatu behar dugu. Victoria Eugenia, Urriak 14 eta 15ean, bi kantaldi multipleak izango dira. Hor denek parte hartuko dute. Ikusten duanez, hor saiatzen gaituk ea zerua ikutzen dugun negu beltzean erori gabe.

– *Eta azkenik, gure gai nagusiarekin bukatzeko: Barne Kanta diska bat gehiago izan da hire traiektorian?*

– Ez, ez. Agian inportanteena. Bai bere edukiagatik, eta bai erabili dudan poesia horregatik; gainera ez da ahaztu behar zein momentutan tokatu zaidan hori egitea. Eta gero, musikal-

ki, nere ustez lanik serioena izan da. Hortikan aurrera, seguru-seguru zenbait kanta grabatu baino lehen, askoz ere gehiago pentsatuko dut.

Hara nola biluztu zaigun gau r gure pertsonaia. Alferrik izango litzateke ni orain zerbait gehitzen hastea. Horregatik Imanol agurtzen dugu, barru-barrutik esanaz, hemendik aurrera gertuago, elkartuago gaudela.

Agur, Imanol!

Juan Maria Arrizabalaga